

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

2019ko enplegu publikoaren eskaintza

Bo190516A. Administrazio honek onartu egin du bete gabe dauden eta ondoren azaltzen diren lanpostuetarako enplegu publikoaren eskaintza, 2019ko ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorrari dagokiona. Hori guztia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 91. artikuluan, LPOEren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak 70. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 24. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Erreferentzia alfanumerikoa: PresuGen2019OEP.

Lanpostua: administraria; lanbide kategoria: administrariak; taldea: C; azpitaldea: C1; maila 16; titulazioa: LPOEren 76. artikulua; betetzeko era: LPOEren 78. artikulua; hizkuntza eskakizuna: 2 (2022.12.31); lanpostuaren kodea: AG/ADIN/IT/C1/16/222/2.

Administrazio honek, orobat, erabaki du onestea 2019rako enplegu publikoaren eskaintza onesten duen martxoaren 29ko 211/2019 Errege Dekretuak 3. artikulua 7.etik 13.era eta 15. eta 17. apartatuetan zehazten dituen aukeraketa prozesuetan aplikatzeko diren irizpideak.

Oion, 2019ko maiatzaren 16a

Alkatea

EDUARDO TERROBA